

Karrikaren taupadak

Uda bukaera. Atera berri da Robin Campilloren *120 battements par minute* (*120 taupada minutuka*) filma Frantziako Estatuko zine-gela guzietan. Iragan mende bukaeran hiesaren (Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromea) kontra borrokatzen zen Act Up-Paris elkartearen erretratu hunkigarria, sarkorra eta sumingarria proposatzen du mugimenduko militante izandako zinegileak. Filmak biltzen duen arrakasta izugarriaren aitzinean, boz batzuk altxatzen hasi dira orotarazteko, gaur egun Act Up-Paris mugimendua laudorioz estaltzen duten berdinek zituztela 90eko hamarkadan haren militanteak gogorki kritikatzeko, hiesarekin batera, homosexualak, droga-zaleak, prostitutak, presoak... defendatzen zituztelako. Hots, boteredunek gorde eta laborategiak ustiari nahi zituzten ber-berak. Karrika zen Act Up-Paris-en oholta. Ekintza sinbolikoen bidez, ikusezina ikusgarri bilakatzen zuten.

Uda erdialdea. Astekari honetan berean, Joseba Alvarezek idazten zuen turismoaren kontrako mobilizazioen harira, karrikan dabiltzanoin gaizak "gaizki" egin dituztela leporatu dietela beren bulegoetatik gaizak "ongi" egiten dituzten horiek. Errealitatea karrikan da, ez administrazioen txostenetan edo (ni bezalako) funtzionarioen Excel tauletan.



Eneko Gorri
EUSKARA TEKNIKARIA

Errealitatea karrikan da, ez administrazioen txostenetan edo (ni bezalako) funtzionarioen Excel tauletan. Karrika versus burokrazia dikotomia inoiz baino gaurkotuagoa da

Karrika versus burokrazia dikotomia inoiz baino gaurkotuagoa da. Karrikan gaizki egin izan balira, haien politikak justifikatzen ez ziren aterako hainbeste kargudun. Max Brisson berak, Pirinio Atlantikoak departamenduko turismo komiteko lehendakariak, prentsa aitzinean bere burua defendatu nahi izan du karriketan ikusitako hamar

bat *kolaki* xumeen ondorioz. Karrikako lanak eztabaida mahai gainean emateko bertutea izan du guttienez. Eta agenda politiko-mediatikoan izatetik aldaketa eragitera, borrokaren intentsitate afera bat baizik ez da.

Uda hasiera. Hizkuntzen karrika erabileraren datuak aurkeztu dira. Ipar Euskal Herriari dagokionez, sekulan neurtu den indize apalena jaso da. Karrikaren okupazioa aldatu da (gentrifikazioa, espazio publikoaren pribatizazioa) eta egoera soziolinguistikoa okertu (belaunaldi sakrifikatua adin piramidearen erdialdean dugu, familia transmisioa ia-ia eten da, eskolako euskarak ez du etxeko euskarak bezalako espontaneitatea). Baina horrek ez du kentzen egoera kezkarria dela. Euskararen erabileraren inguruko izan den ondoko bataila. Eta hau ere neurri handi batean karrikatik eraman beharko da.

Uda bukatu da. Sartzea da, baina karrikara ateratzeko arrazoiak ez dira eskas: etorkinen defentsan, lan erreformaren kontra, euskararen alde edo euskal presoen gaia Parisera ekartzeko. Karrikaren taupadak entzunen dira, egituratzen ari den Herri Elkargotik Parisko Beauvau plazako ministerioetaraino. Nork zioen ez zuela karrikak gobernatzen? ■

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu
zure informazioa:

www.argia.eus/buletinak

ARGIA